

**EUSKAL OSASUN ZERBITZUA**

454/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertu egin da Basurtuko Ospitaleko zuzendari mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarilaren 31eko 165/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko Fakultatibo Espezialista Ospitaleko Larrialdetako Medikuntza lanpostu funtzionalaren 21254 plazaren jabea dena, Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

**EBATZI DU:**


Lehenengoa.- Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Izendapenak ondorioak dituen egunetik aurrera, Miren Amaia Ruiz Echevarria andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA****JON ETXEBERRIA CRUZ.**  
Osakidetza  
ZUZENDARI NAGUSIA  
DIRKUTZA